

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gerrako kronikak Nafarroan



Amaia Serrano Mariezkurrena

Euskal eleberriaren historian maiz agertzen da 36ko Gerra, hainbat estetika ezberdinen bidez. Gutxi dira, ordea, ga(ra)i hau jorratzeko eleberri historiko tradizionalaren moldea hautatu dutenak, nahiz eta gerra hizpide duten 1936-1957 bitarteko ohitura eleberrietan halako zantzuren bat ikus daitekeen (*Loretxo*, *Ekaitzpean* edo *Laztantz* eta *Betargi* ditut gogoan). Patxi Zabaletaren *Badena dena da* nobela da azpigenaro horren barruan bete-betean kokatzen den bakanetakoa.

Trilogia bateko bigarren alea da hau, eta, Beñat Mandazenengan fokua jarrita, narra-tzaile orojakileak emango digu Nafarroako iragan hubilaren berri. Beñaten bidean egokitzen den pertsonaia bakoitzak bere istorioa du, nahiz eta bata bestearekin loturaren bat ageri duen beti, dela bakardadeak jotako pertsonaia direlako, antzeko egoeraren bat bizi izan dutelako, haurrak zirenean elkar ezagutu eta urte askotara berriro topatzen direlako, eta abar. Horrek guztiak, maitasun istorio, traizio, eta harreman sexualen deskribapen zehatzekin bat, irakurlea harapatzen du.


Eleberri historikoan ohikoa den bezala, iraganean jartzen da arreta, eta pasarte batzuk historiografia tradizionalatik gertu daude. Zabaletaren literaturak, gainera, badu beste berezitasun bat, eta horri izenburutik bertatik antzematen zaio, tarteka pasarte filosofiko luzeak txertatzen baititu istorioan. Batzuetan, ordea, erregistroa dela-eta, ez zaizkio behar bezala egokitzen, eta behartuxerak geratzen dira azalpen historiko eta

Badena dena da

PATXI ZABALETA

Txalaparta, 1995

Patxi Zabaleta Zabaleta idazlea
(Leitza, Nafarroa Garaia, 1947).



filosofiko horiek, eleberria fikzio literariotik urrunduz.

Haatik, eleberri honek formarekin guztiz asmatzen ez badu ere, ekarpen interesgarri batzuk egiten ditu: anarkista talde baten gorabeherak azaltzen ditu, haien arteko zenbait kontraesan-gogoeta agerian utziz (guztiak taldearen botere-kudeaketarekin lotuak), medikuntza-ikasketadun emakume bat jartzen da anarkisten lider (zeina, bidez batez, desiragarri izateaz gain, haren izena ere fonetikoki xamurra den, Loretxo eta Laztantzuren antzera: “– (...) Hize Oxo. Zeinen izen leuna, zeinen izen xarmanta (...)”, (327), frankisten bandoko tirabiren lekukotasuna ematen du (karlistak, faxistak eta falangistak), eta abar.

Liburu honetako osagaiek irakurle masa erakartzeko aukera dute, eta, hala, emakumeek gerran jasandako makurreriak oroitarazteko idazlearen asmo esplizitua bete dezake nobelak. ■